

Prensa oharra

UPV/EHU-k eta Kutxabankek finantza zerbitzuen kontratua berritu dute

- **EHUri eta unibertsitateko elkargo osoari lehenetasunezko eta hobariazko finantza-zerbitzu sorta eskainiko die Bankuak datozen bost urteetan**

2019ko urtarrilaren 21ean.- Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eta Kutxabankek ohiko zerbitzuak emateko kontratua izenpetu dute, eta bertan finantza- eta banku-zerbitzua ematea aurreikusten da datozen bost urteetan.

Kontratua prozedura ireki bidezko esleitze-prozesuaren ondoren izenpetu da, eta bi erakundeok 2013an izenpeturiko lankidetzaren esparrua berritzen du.

Finantza-eremuan, UPV/EHUren esku jartzera konprometitzen da Kutxabank lehenetasunezko baldintzak bere ohiko jarduera egiteko behar dituen finantza- eta banku-zerbitzuetan. Hor sartuta dago irakasle, ikasle eta unibertsitateko langileei maileguak ematea. Ikasleek matrikula ordaintzeko, beren ikasketak finantzatzeko, master edo gradu-ondoko ikastaroak egiteko, edo Erasmus truke-programarako maileguak eskatu ahal izango dituzte. Irakasleen eta langileen kasuan, lankidetzak baldintza bereziak ezartzen ditu etxebizitza erostera bideratutako edo kontsumorako gaien erosketa finantzatzeko maileguetarako.